

+ x + x + x +
+ x + x + x +
+ x + x + x +
+ SEMINARIO +
+ MINTEGIA +
+ x + x + x +
+ x + x + x +
+ x + x + x +

Arteetatik abiatutako ikerlana eta abentura

Sorkuntza-lan bitxiak, prozesu kolektiboak

Rosa Casado, Ignacio de Antonio, Karin Elmore, Cuqui Jeréz, Cécile Brousse, Rut Martin, Isis Saz, Tania Castellano, Ion Munduate, Nazario Díaz, Idora Zabaleta, Leonor Leal, Zara Rodríguez Prieto, María Jeréz, Anto Rodríguez, Diana Delgado-Ureña, Victoria Pérez Royo

Irudia: Crocodiles and Alligators-Cuqui Jeréz
Argazkia: Ouidade Soussi-Chiadmi

2018

Abenduak 14, 15 eta 16

AC/E
ACCIÓN CULTURAL
ESPAÑOLA

II
Huarte

Mintegi hau “Praktika Eszenikoari eta Ikus Kulturari buruzko Masterraren 10 urte” izenburuko jardueren baitan antolatu da. Diana Delgado-Ureña eta Victoria Pérez Royo dira **komisario**.

Behin ikerketa batean hasten garenean, nekez jarraitzen diogu otzan-otzan ikerketa gauzatzeko egina genuen planari. Aitzitik, abentura posible bat izaten da. Ikerketa artistikoari dagokionez, guk termino horren inguruan antolatzen den konstelaziotik pentsatzea proposatzen dugu ikerketa artistikoa; horrek esan nahi du alde batera utzi behar direla hainbat nozio, hala nola metodoa eta prozedura, bideragarritasuna eta plan aurreikusia, eta aldiz, beste termino batzuk jorratu beharra, hala nola arriskua, porrotaren posibilitatea, ezezaguna eta ez-jakitea, besteak beste. Kontua ez da barkaberak izatea, baizik eta arreta egitea helmuga bat xede bakartzat lortu nahi ez denean agertzen den mundu guztiari, zilegi baita proiektua bera aldatzea, eta ikerketa horretan dauden afektu, grina eta harremanek jarrerak eta ziurtasunak mugiaraztea, eta era berean, bidearen hasieran pentsaezinak ziren ikuspegi berriak irekitzea.

Abenturaren konstelazioan interesatzen den distantzia ez da inoiz izanen ikuslearen eta ikusitakoaren artean fabrikatzen den huraxe, hau da, ikerketa neutral bateko materialak ikertzen ari den ikertzaileak material horiekiko duen desafektuari dagokiona, baizik eta ibilbidearen emankortasuna eta aberastasuna adierazten duena, munduko edukien eta artistaren esperientziaren arteko distantzia, bere bilaketaren aurretik eta ondotik. Ikerketa ona, hain zuzen, emankorra, erabilgarria, bidergarria eta eraginkorra da. Abentura ona, berriz, interesgarria, oparoa eta askotarikoa da, eta ezin da aurretik jakin zer bide hartuko duen.

EKINTZAK

1. Solasaldiak

Solasaldi edo elkarrizketa formatua aukeratu dugu, inpresioak, intuizioak, afektuak eta esperientziak elkarri trukatzeko, horiek oro agertzen baitira jendearen bidelagun nahiz jendea gure bidelagun izateko prozesuan, ikerketa-sorkuntza batean. Masterrean irakasle gisa gonbidatutako artistek programan deitzen diegun sorkuntza-ibilbideak sortu zituzten; hain zuzen, ikastaro bakoitzean zehar, sorkuntza-prozesu pertsonalak eta kolektiboak garatzeko erabiltzen diren ekintza-esparruak dira; ezberdinak, betiere, masterraren edizio bakoitzean.

Solasaldiak bikoteka antolaturik daude. Honatx bikotekideak: bata, beren jakintza nola eta nondik partekatu pentsatzera gonbidatutako artistak, betiere halako elkarrekintza sentikor eta berezian, jakin-minak eta entzun nahiak bulkatuz. Eta bi, masterreko parte-hartzaile gisa esparru horiek bizi izan dituzten artistak.

Solasaldia bitarteko malgu bat da, egin ahala aldatzen dena. Horrek hainbat ikuspegi ikusteko parada ematen digu esperientzia bat azaltzerakoan, eta zalantza-gune batean kokatzen gaitu, eta kokatu ere,

zer gertatuko den jakin ezina den mugimendu batean. Ikerlan artistikoen prozesuetan eta abenturetan gertatzen den bezala, solasaldiak ere badakigu nola hasten diren, baina ez zer gertatuko den, ezta nora iritsiko diren ere. Beraz, leku ezin hobea da Cavafisek bezala, guk ere antzekoa opatzeko, hots, “izen bedi bidea luzea, abenturaz beterikoa, esperientziaz beterikoa”...

Honatx solasean ari diren bikoteak:

Rosa Casado eta Ignacio de Antonio

Cuqui Jerez eta Cecile Brousse

Ion Munduate eta Nazario Díaz

Idoia Zabaleta eta Leonor Leal

María Jerez eta Anto Rodríguez

2. Laborategiak

Saio praktikoak laborategi formatuan / ekintza kolektiboa

Paseando al Perro.* Karin Elmore

Eguneroko ekintza batek, itxuraz ohikoa den batek, garrantzi berezia hartzen du erritu bihurtzen denean, eta horrek eraginik, beste esanahi askotara irekitzen denean, eta are gehiago, ekintza hori erregistratzen bada, eta erregistroa beste pertsona batekin partekatzen bada, ekintza berrinterpretatu dezan.

Horrela, txakurra egunero paseatzera ateratzeko ekintzak bide berdinen eta antzekoaren eguneroko eta ordu bereko errutinarekin lotzen gaitu. Ekintza horren inguruan, dena den, faktore asko aldatzen dira, eta faktore horiek eraginik, ibilbidea berbera izanik ere, begirada eta esperientzia aldatu egiten dira.

Eskura dugun ordu eta erdian, kasualitatea – kausalitatea gaia lantzen saiatuko gara, eta materialak bildu eta lagunekin partekatuko ditugu, bestelako esanahia emateko.

***Ganchillada subversiva.* Isis Saz**

“Kakorraz-lana egiteak eta aktibismoak, itxuraz behintzat, ez dute zerikusirik handirik.

Bitxia bada ere, zerikusirik ez izate horrek eraginik, kakorraz-lana gaur egun protesta soziala egiteko modu herrikoia da”. (In the Loop: knitting Now, Jessica Hemmings).

Horrenbestez, betoz ehuleak eta ikusmina dutenak, hasberriak eta baldarrak, frikiak eta gainerakoak, betoz guztiak, kakorraz-hitzaldi batera, artileen, aktibismoen, gerrillen, hiri borrokarako elementuen, barrikaden eta orratzen artean harremanak ehuntzeko.

3. Aurkezpenak

Benedictas, una historia real.* Karin Elmore

Hitzaldiak artea sortzeko ekintza aztertu nahi du era filosofikoan eta ludikoan, dantzaren historiari buruzko ikuspegi berezi baten bitartez.

Bidaia bat da, eta ibilian, Peruko dantzaren fikziozko historiaren (eta benetakoaren) birsortze mota baten bidez pasatzen gara publikoa eta biok errealitate fikziora; horrela, hori lotzen dugu munduaren gainerakoan gertatu zenarekin XX. mendetik gaur egunera; azkenean, ezusteko etorkizun-ikuspegia.

Perfomanceak baliabide eta material testualak eta bisualak erabiltzen ditu, bai eta koreografo ospetsuen dantza-errepertorioak ere.

Sortzailea eta interpretea: Karin Elmore

Kanpo-begia eta zuzendari-laguntzailea: Massah Lucar

***Tejedorxs y subversivxs.* Zara Prieto eta Isis Saz**

Aurkezpena: Efímera Revista #10 –2018ko azaroa

Tejedorxs y subversivxs ekintza-artearekin eta craftivismoarekin lotuta dauden praktikak agerrarazi eta aztertzeko leku bat da. Horrelako praktikak azken urteotan gertatu dira sare globalizatu berri batean, bilbe eta irazki berriak ehunduz zabaltzen dena, non, ehuntzea, bordatzea edo jostea bera da ehundutako gauzakiaren gainetik gailentzen dena; ekintza hori, halaber, harreman eta esperientzia berrien lotura da, eta haietatik abiatuta, mundua ulertu, bizi eta eraldatu dezakegu.

4. Mintzaldiak

***Destiempos de imagen.* Tania Castellano**

Artelan jakin batzuk lan bukagabeen artean koka genitzake. Izan ere, ez dute amaierarik edo amaiera bertan behera gelditu da aldi baterako, eta hori etengailu bat bezalakoa da bi zentzutan: batetik, emandakoaren jarraipena mozten du, eta bestetik, lanaren aktibazioa pizten du. “Bukagabetasun” hori, beraz, ez litzateke gauzatze-prozesuan gertaturiko zerbait, ezta bukagabearen estetika baten egikera edo estilo bat, baizik eta itxiera falta horrek aktibatuko luke lana, hain zuzen ere, gailu estetiko gisa.

***Los procesos de investigación desde las artes como campo de fuerza para la circulación de afectos.* Rut Martín**

Nola zirkulatu dute afektuek, arteetatik abiatutako ikerketa-prozesuetan? Abiaburu horretatik, gogoetagai izan nahi dugu arteetatik abiatutako ikerketaren tresnen berezitasunak nola sendotzen duen zirkulatze afektiboa, eta zer neurritan dakartzaten egite-molde bereziak. Ulertzen da kontu hori gakoa dela beste gai hau jorratzen saiatzeko: hots, afektu-zirkulazio hori atxikitzen zaiela prozesu horietatik eratortzen diren praktikei beraiei, eta horrek beren agentzia-gaitasuna handitzen du praktikak partekatu, esperimendu edo bizitzekoan. Horrela, afekzio-eremu askotarikoa ezartzen da, banakotasunaren eta kolektiboaren artean dabilena, eta era berean, materialaren eta immaterialaren artean, gorputzaren eta gorputzen artean, objektuen eta subjektuen artean.

IBILBIDE PROFESIONALAK

Rosa Casado

Rosa Casado artistak sormenezko hainbat arlotan dihardu eta ikertzailea ere bada, eta ekintzatik abiatu, sorkuntza, gogoeta eta kritikarako proposamenak sortzen ditu gu ibiltzen garen, okupatu eta bizi ditugun espazio eta lekuen gainean. Rosa, nagusiki, eszenagintzatik heldu da, baina testunignuruetan duen interesak bulkatu, ingurumeneko estudioetan ibili da, bai eta sistema eta konplexutasunezko nahiz fisikako estudioetan ere. Beti aritu da zubigintzan formen eta bitartekoen artean. 2000. urteaz geroztik, Mike Brookes artista ingelesarekin ari da lankidetzan, eta biek elkarrekin, era bateko zein besteko lanak ekoiztu dituzte: performanceak, ekintza-arteak, eta galerietarako piezak, egituren bermaturik bai European eta Asian, bai Erdialdeko nahiz Hego Amerikan eta AEBn. 2017an, doktorego-tesia bukatu zuen Glasgowko Unibertsitatean, eta gaur egun, hainbat programa, ikerketa- eta pedagogia-proiektu ari da lanean bere ekarpena egiten.

Ignacio de Antonio

Ignacio de Antonio Antón arkitektoa eta eszena-sortzailea da. Arte-praktikaren bidez ikertzen du. Egun, doktorego bat lantzen ari da, *Performing Censorship* ardatz hartuta. 2016an, New York Universityko Performance Studies departamentuan ikasi zuen, Fulbright beka bati esker. Ekintza-arteak eta praktika espazioetan dihardu. Bere ibilbideak praktika horiek ditu ardatz; gailu gisa ulertzen dira, non, desadostasun sozialen mekanismoak jartzen baitira krisian, haien balioa nabarmendu bidenabar, bai eta kritika instituzionala ere. Gaur egun, aldi berean, bi talde-ikerketatan ari da, hots, *Bastante Algo – Otros Muebles*, Ainhoa Hernándezekin batera, diseinuaz eta koreografiak, eta *Aquí Cabe un Teatro*, pentsamendurako eta lanerako espazio bat ekoiztea, Bartzelonako AHUM artista kolektiboarekin batera.

Karin Elmore*

Koreografoa, artista ikertzailea eta proiektu-kudeatzailea, Kultur Kudeaketan masterduna. New Yorken prestatu zen bai dantzari, bai koreografo (1981-1984), Merce Cunninghamen Eskolan, Hania Holm eta Alvin Nikolaisekin. Liman, Erroman, Mexikon eta Frantzia bizi, eta lan egin du. Haren lanak nazioarteko Museo, Antzoki eta Jaialdietan aurkeztu dira, hala nola Linz Ars Elektronika; Oriente Occidente Jaialdia, Rovereto; Galería Nazionale d'Arte Moderno, Erroma; Palazzo delle Esposizioni, Erroma; Chateaufallon Jaialdia, Frantzia; Centro Nacional de las Artes, Mexiko; Dance Theatre Workshop, New York; Madrilgo Sofia Erregina Museoa, Rio de Janeiroko Panorama Jaialdia, besteak beste.

*INDISCIPLINADOS*ko zuzendaria da (Lima), nazioarteko dantza eta beste bitxikeria batzuen topaketak, 2015etik hona.

Cuqui Jerez

Koreografoa eta performerra. Bere praktika guztiak koreografiatzat jotzen ditu, alde batera utzi zer formaturen bidez ematen diren: performancea, bideoa, antzerkia, argazkia, testuak edota argitalpenak. Bere lanaren ikuspegia errealitate berriak eta hizkuntza berriak sortzea da espazioaren, denboraren eta gorputzen bidez. Desplazamendu bat eragin nahi du ikuslearen esperientzian. Aldatzen joan dira desplazamendu-ideia hori ulertzeko moduak. Azken lanetan, behatzen eta praktikatzan ari da gauzen portaerari dagokionean, performerra eszenatik aterata eta mugitzen diren gauzei paisaiak sortzeko aukera emanda; aldi berean, kontzentrazio-egoeran sartzeko aukera ematen dio ikusleari, non, aldi berean, hiper-arreta, ikusmina, suspensea eta emozioa gertatzen diren.

Cecile Brousse

Azaleran, eta espazio kontuetan interes handi-handia duela, performanceak osatzeko hainbat manera ditu ikergai. Ez dakiena abiaburu haturik, koreografia lantzea ikaskuntza-bide bat da berarentzat gauzek zer-nola funtzionatzen duten jakiteko, edo hobe esan, arazoak nola asmatu ikasteko. Beha eta eren dago non esaten den, non mugitzen den, non egiten den dar-dar, eta egintza performatiboa pentsatzen du, eskalen, jendearen eta uneen arteko harreman-bitarteko bida.

Egun, Cuqui Jerezekin eta A.I.M.E/Julie Nioche ari da lanean, eta tailerrak tokiotan ematen ditu: Sandberg Instituut, Atelier de Paris/Carolyn Carlson.

Rut Martin

Arte Ederretan lizentziaduna (Usal), Arte Ederretan doktorea (UCM), masterduna Arte Garaikideetako Teorian eta Praktikan (UCM). Pintura eta Kontserbazio-Zaharberritze Departamentuko irakaslea da Arte Ederretako Fakultatean (UCM). “Arte y Estética” ikerketa taldea zuzendu du (UZ). Gaur egun, bi ikerketa taldetan da partaide: “Prácticas artísticas y formas de conocimiento contemporáneas” eta “Estética y Filosofía de la Imagen” (UZ). Bestalde, “El cuerpo enfermo en el arte” eta “Corporalidad identidad en el arte contemporáneo” ikerketa-proiektuak zuzendu ditu Antonio Gargallo Unibertsitate Fundazioan.

Gaur egun, “Interacciones del arte en la tecnoesfera. La irrupción de la experiencia” eta “Imágenes, acción y poder. Agencia icónica y prácticas de la imagen contemporánea” proiektuetako ikerketa taldeetan ari da, eta “Puntos de encuentro. Investigaciones de posgrado en proceso” berrikuntza proiektuaren arduraduna da. Gehienbat, arte-praktika garaikideak aztertzen dihardu, ikuspegi sozialetik eta politikotik, eta era berean, irudi artistikoa ari da lantzen, bai eta irudi horrek ezagutzarekin duen lotura ere.

Isis Saz

Arte Ederretan doktorea. Ikasketak egin eta Arte Garaikidearen Historian, Ikus-entzunezko Artean, Arte Eszenikoen Historian eta Dantzaren Kritikan espezializatu zen. Arteako kide da. Estatuko eta nazioarteko proiektuetan parte hartu du, praktika eta ikerketa artistikoarekin, ekintza-artearekin eta ikus kulturarekin lotutakoak. Hainbat zentrotan egin ditu ikerketa-egonaldiak bere ibilbidearen osagarri, hala nola Londresko Live Art Development Agency erakundearen. Irakaslea eta ikertzailea da Gaztela-Mantxako Unibertsitatean. Kultura, Kirol eta Unibertsitate Zabalpeneko Errektoreordetzako zuzendari akademikoa, eta Praktika Eszenikoari eta Ikus Kulturari buruzko Masterrean zuzendarikidea.

Tania Castellano

Arte Ederretan lizentziaduna da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Arte Ederretan doktorea. Unibertsitate berean, honako tesi honekin: *Distracción, shock, interrupción: la recepción de Walter Benjamin en las prácticas artísticas contemporáneas*. Ikerketa egoitzak egin ditu Ha Berlingo Walter Benjamin Archive-n, Buenos Airesko Arte Ikerketen Zentroan, Parisko de Maison des Sciences de l’Homme etxean, eta New Yorkeko MoMA-n. Gaur egun, irakaslea da La Laguna Unibertsitatean.

Ion Munduate

Donostian, Madrilen eta Parisen jaso du prestakuntza. 1994an, arte lankidetzan hasi zuen Blanca Calvorenkin, eta harreman horrek hainbat lan eman zituen. Aldi berean, Mugatxoan sortu zuten 1998an, hau da, ikerketari eta sorkuntzari buruzko prestakuntza-proiektu bat. Objektu immaterialaren eta ikuslearen artean gertatzen diren harremanak dira ekimenaren ardatza, eta dispositibo horien sorkuntza performancearen eta haren deribazioetan kokatzen dute. Beren performanceak eta bideoak Europako hainbat espaziotan aurkeztu dira. Tailer eta mintegi asko eman dituzte, eta gazte artisten pieza batzuen tutorea izan da. 2015ean, Gure Artea saria eman zieten, Mugatxoan ekimenarengatik, ikus arteetan ondutako jarduera aitortzeko. www.mugatxoan.org

Nazarío Díaz

Arte eszenikoetan dihardu, arreta idazketan, gorputzean eta begiradan pausatutik. *Looking for Pepe* (2016-) izan da azken lana, Pepe Espaliú artista kordobatarraren figuratik abiatuta eraikia, eta hizkuntzarekin nahiz lurraldearekin lotura duten kontuei heldu die. *Looking for Pepe* Donostiako Kultura Garaikidaren Nazioarteko Zentroan aurkeztu da, edo Azkuna Zentroan, Elipsiak testuinguruaren baitan, Isabel de Naveránek komisariatua. 2007az geroztik, lana gehienbat Vértebro taldearen barnean ondu du, eta talde horrekin batera, Beautiful Movers komisariatu du Kordoban, hots, praktika eta gogoeta gune bat da arte performatiboaren inguruan, estatuko eta nazioarteko hogeitazortzaita inguru bildu dituena. Besteak beste, Societat Doctor Alonso eta Isaak

Erdoizarekin aritu da lankidetzan.

Idoia Zabaleta

Sortzailea, koreografoa, performerra. Bartzelonan, Amsterdamen eta New Yorken jaso du prestakuntza, eta David Zambrano, Meg Stuart, Vera Mantero eta beste artista batzuekin lankidetzan. Gainera, lizentziaduna da biologian, populazioen ekosistema eta dinamikan espezializatua; azken hori ederki ageri da bere lanei darizkien ideietan: tentsioak eta harremanak interprete eta sortzaileen, eta publikoaren artean, edota aurkezpen espazioarekin, edo lurraldearen mugekin, etab. Kudeatzailea eta irakaslea, 2008an AZALA sorkuntza gunea sortu zuen Juan Gonzalezekin batera, sorkuntza eszenikoa ikertu, sustatu eta zabaltzeko.

Leonor Leal

Flamenko "bailaora" da, flamenko sortzaile eta ikertzailea, poetika eta ikuspegi atipikoetatik. Dantza klasikoan eta espainolean dauka titulua Goi Mailako Kontserbatorioan, bai eta Musikaren Irakaskuntzan ere, Sevillako Unibertsitatean. Duela 15 urtetik hona, nazioarteko agertokietan dabil hainbat konpainiarekin lankidetzan. 2008an heldu zion bakarkako bideari. Artista berriak onenarendako saria eman zioten Jerezko Jaialdian, 2011n, bai eta artista bikainari zegokion saria, Madrilgo Koreografia Lehiaketan. Ikerketa lanean eta jakintza sakontzeko bidean segitu zuen, praktika eszenikoari eta ikus kulturari buruzko Masterraren bidez. *"Nocturno"* sorkuntza lan berria estreinatu berri du Sevillako Flamenkoaren Bienalean (2018ko irailaren 23a); lanbide horretan, María Muñoz izan du lankide (Mal Pelo), zuzendaritza laguntzaile gisa, eta era berean, Alfredo Lagos gitarra-jotzailea eta Antonio Moreno perkusionista.

Zara Rodríguez Prieto

Efímera aldizkariko zuzendaria da, hots, ekintza-arteetan espezializatuta dagoen argitalpena; zehazki, ekintza-artearen azterketa eta ikerketa bultzatzen ditu esparru teorikotik nahiz praktika

performatibotik. 2009tik aitzina, I+G proiektuetan aritu da, Ikerketa Zientifikoaren Goi mailako Kontseiluan, arte eszeniko garaikideak aztertzeko. Eta Gaztela-Mantxako Unibertsitatean, berriz, lanean aritu da Arte Eszenikoen Artxibo Birtualan eta European Collected Library of Artistic Performance ekimenan.

Artaren Historian lizentziaduna, Artea ikerketa taldeko kidea da, hainbat testu ondu ditu praktika iragankor garaikideez eta irakasle aritu da Cuencako Arte Ederren Fakultatean. Gaur egun, gehienbat, esperientziaren analisisetan dihardu Sarearen bitartez pentsatu eta garatutako lan performatiboetan.

María Jerez

Koreografoa eta performerra. Koreografiaren, zinemaren eta ikus arteen artean ari da lanean. 2004az geroztik ondutako lan batzuen muina ikuslearekiko harremana izan da, irudikapen moldeak krisian sartzen diren espazio gisa. Horrela, “*El Caso del Espectador*” lanetik “*Blob*” eta “*Yabba*” azken piezetara, harreman hori aldatu eta bilakatu egin da; lehenago, antzerki eta zinema konbentzioak “elkar ulertzeko” leku bat zen (hau da, expertizajearen lekua), eta orain, aldiz, erreferentziak nahita galdu dira, eta artistak, lanak eta ikusleak arrotz jokatzeko dute elkarrekiko.

Anto Rodríguez

Arte eszeniko garaikideen praktikan eta teorian jaso du prestakuntza. Hainbat interes ditu, hala nola herri kultura, errealitatearen irudikapena hedabideetan, eszenako arauak, eta Isa Pantojaren eta Omarren artan gertatzen ari den guztia GHko etxetik ateratzean. Ikerketan, sorkuntzan eta hainbat testuingurutako prozesu artistikoen akonpainamenduan ari da. Bakarkako lan artistikoa ontzeaz gain, hainbat espaziotako kide da, hala nola UCLMko Praktika Eszenikoari eta Ikus Kulturari buruzko Masterra eta Artea ikertzaile elkarteak. Lankidetzan aritu da Denooijer, Amalia Fernández, María Jerez, Juan Domínguez eta beste artista batzuekin. Hainbat tokitan erakutsi ditu bere sormen lanak: Teatro Pradillo, *Qué puede un cuerpo* Jaialdia, Jaliscoko MET erakustaldia, Surge Madrid, Picnic Sessions del Ca2M, Veranos de la Villa eta Conde Duque Zentroa.

Diana Delgado-Ureña

Ikertzailea eta komisarioa arte eszenikoen arloan. 2013tik hona, Praktika Eszenikoari eta Ikus Kulturari buruzko Masterraren Koordinatzailea da; ekimen horrek, urtero, esperimentazio artistikorako eta pentsamendu teorikoa lantzeko testuinguru bat proposatzen du, hainbat erakunderekin elkarlanean. 2010az geroztik, auto-kudeaketa, elkarlan eta pedagogia kritikotako proiektuei lotuta dabil, eta era berean, artistekin batera garatu eta kontzeptualizatzen diren proiektuei, bai eta hainbat erakunderi ere. Gaur egun, *Dame Cuartelillo* izeneko ziklo baten komisarioa da, Jaime Vallaurekin batera, Madrilgo Conde Duque Zentroan; zehazki, site specific, performance eta koreografia zikloa da. Eta Vicente Arlandis koreografoarekin, Gabriela Halac ditorarekin eta Migue Martínez ikertzailearekin,

El libro agotado sorkuntza-proiektua garatzen ari da, hots, gorputzetik abiatutako lan bat da liburuei buruz, betiere begirada liburuen material, espazio-banaketan eta irakurleekiko harremanean pausatuta. 2017an, 2017/2018 denboraldiko komisariotza-lanetan parte hartu zuen, bai Teatro Pradillon, bai “*Cuerpos, Desórdenes y Democracia*” nazioarteko mintegian, Madrilgo Matadero zentroan.

Victoria Pérez Royo

Arte eszenikoen ikertzailea eta Arteen Estetika eta Teoriako irakaslea Zaragozako Unibertsitateko Filosofia Departamentuan, eta Praktika Eszenikoari eta Ikus Kulturari buruzko Masterraren zuzendarikidea (Gaztela-Mantxako Unibertsitatea, Erregina Sofia Musoa). Mintegiak ematen ditu arte eszenikoen unibertsitate-programetan, bai Europan, bai Latinoamerikan. Prestakuntza-programa independenteak kontzeptualizatzeko lanetan ari da; adibidez, Ikasketa Aurreratuen Programa Praktika Kritikoetan, *Tetralidades expandidas: modelos gestuales y repertorios disidentes* (2013, Erregina Sofia Museoa, José A. Sánchez eta Isabel de Naveránekina batera), *Cuerpo, Archivo, Memoria* (Matadero 2017), eta ikerketa mintegien kontzeptualizazioan eta komisariotzan, hala nola *Podría quien te recuerda* (2017, Erregina Sofia Museoa, José A. Sánchezekin batera); halaber, topaketa eta jaialdietan dihardu, hala nola *Ser Público* (2016, La Casa Encendida), *Cuerpos, desórdenes y democracia* (Matadero 2017 Fernando Quesada eta Diana Delgado-Ureñaekin batera), eta *El Cuerpo en la Mirada* mintzaldi zikloa (Teatros del Canal 2017 eta 2018)

Hainbat libururen editorea izan da: *Danza contemporánea, espacio público y arquitectura* (2008), *Práctica e Investigación* (2010, José A. Sánchezekin batera), *10 textos en cadena y unas páginas en blanco* (2012, Cuqui Jerezekin batera), *Componer el plural. Cuerpo, escena, política* (2016, Diego Agullórekin batera) eta *Dirty Room* (2017, Juan Domínguezekin batera).

*Acción Cultural Españolak (AC/E), (PICE) Espainiar Kultura Nazioartekotzeko Programaren, Bisitariak modalitatearen baitan emandako laguntzak, Karin Elmore peruarra Uharte Zentroan egotea ahalbidetu du.



||
Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

Calvario, 2. 31620
Uarte Huarte | Nafarroa Navarra
t. 948 361 457 | centrohuarte.es

Finantziatua / Financiado por

